

Ahozko euskara batua

EUSKARA batuaren geroaz' eman zuten hitzaldia Txillardegik, Iruñean Udako Euskal Unibertsitatearen hasiera egunean (93.7.19). Ur handietan sartu gabe, ez baita hau horretarako toki aproposa, irazkinen bat egin nahi nioke, bertan egon bait nintzen, eta testua irakurtzeko aukera eman bait zidan hizlariak kopia bat emanaz.

Argi gera bedi euskara batuak dituen arazoak era askotakoak direla. Batzuk, euskara idatzari dagozkionak, idazlearen erabileraz eta Euskaltzaindiaren erabaki eta gomendioen ondoren konponduak direla esan dezakegu. Chahorengandik hasita, hizkuntzalariek hainbat fenomeno fonetikoen transkribapenak idatzeko ebazpideak eman dizkigute. Eleizalde proposatzen zuten 'fonetikaren batasuna' lortua da hein batean. Ortografia, esate baterako, nahiz eta berriki hitz kultuontzat beste irizti batzuk izan, lortua da batasuna, Baionan 1964.eko abuztuaren egin zen biltzarren ildotik. Han zegoen Txillardegik baita aditz batuaren taulak Euskaltzaindiak egin zituenen ere. Deklinabidea ere finkatua da jadanik eta lexikografian ere urrats handiak eman dira. Euskaltzaindiak, izatez, sorrera egunetatik, duela 75 urte, euskara batuaren kezka eta helburua du. Arantzazun 1968an egin zen biltzarrean eman zitzaion kezka honi bultzada eta hamar urte geroago, ibilutako bidearen hausnarketa Bergaran egin zenean, hainbat arau praktikan onartuak geratu ziren. Baina Euskaltzaindiak (eta beste erakunde batzuk, hala nola UZEL, Elhuyar eta bestek) nolabait euskara idatzaren koda soil-soilik ematen ari dira. Eta, idatzitakoa, nola ahozkatu? Ebakieran nola batasun batera heldu?

Hau da Txillardegik Iruñean eman zuten

hitzaldiaren eduki eta mamia. Ez da (ezta?) gai honetan gure Jose Luis etorberria. Arazoa ondo aztertu ondoren eman zigan 1980an 'Euskal Fonologia' liburu mardula, entseukiarrean. Fonetika hutsak planteatzen dituen problemak gaindituz —eta asko dira— Fonologiari ari da, euskara idatzia mintzatu behar denean nola ahozkatu behar den arautu nahian. Badu meriturik lan honen lehen sistematizazio lana baita. Gero, 1983an, Bartzelonan irakurri zuten tesia euskaraz eman zigan 1984an 'Euskal azentuaz' liburuan. Gogora dakarkigu Altuberen 'El acento vasco en la prosa y en el verso', mendealdeko euskaldiak hedatzen dituelarik Txillardegik berean. Baina prosodia (ahozkera eta azentua) baino urrunago zihono Altube 1932an egin zuen ikerketan: morfologia eta sintaxietatik aparte Tonologia aztertu behar zela proposatzen zuten, hizkuntzaren doinua, hain zuzen. Agustín González Azilu, musikari nafarrari igorri nion Altuberen liburua, eta testu mintzatu batzuetaz baliatuz, hiztunaren doinua garatu zuten eta 'Oratorio Pan-Lingüístico' musikalan komposatu zuten, zeinek Musikazko Sari Nazionala irabazi zuten 1971an. Prosodiatik idatzitakak daukan aberastasun hau, euskal herri musikari oinarria ematen diona, ez dut uste behar bezala ikertu denik. Badauzkat nire artxi-boan gai honetaz Orixek, Zetarinnek eta Altubek gurutzatutako gutunetan ematen duten iritzia. Musikologiari dagokion arazoa da, gehien bat, baina fonologiari gain tonologiari aztertu beharko lukeena.

Goazen berriz harira. Hizkuntzak lehenbizi mintzatuak dira; gero dator mintzaturik hitzak idatzi beharra. Mintzaten dena da hizkuntza biza; idatzitako soil-soilik ezagutzen duguna hizkuntza hila da. Beraz,

ahozkatze arauak behar badira hizkuntza zuzenki mintzatzeko, fonetika ondo transkribatzeko ere arauak beharko dira. Eta nola idatziz, ahozkatzen den eran? Eta nola ahozkatu (irakurtzen duenak), ortoepia kontutan izan gabe? Fonologiari arauak eman behar ditu euskara ondo ahozkatzeko, ebakitzeko. Arau hauen premia aipatzen du Txillardegik hitzaldian, lehenago aipatu lanetan ainarrituz, ahozko euskara batura heldu beharrez. Arazo larriak daude alor honetan. Altxor zaharreko hitzen ahozkerak jatorrizko euskaldunen ebakieratik har daitete. Baina, nongo, zein euskalkioko ebakieratik? «Hizkera batua lortu eta erabiliko duen gizarte atala indartzea» dela bidea dio Txillardegik, eta indartu behar den gizarte-atalki hori Donostia ingurukoa izatea proposatzen du. Azkueren 'Gipuzkera osotaren' antzekoa? Ez dut uste hala izan beharko denik. Baina altxor zaharreko hitzekin eredu —bat edo beste— badugu, nola ahozkatu kultur hitz modernoak? Kasu honetan ere Txillardegik proposatzen duen paroxitonia ez dut uste lege bihurtu daitekenik.

Euskaltzaindiak, 1993/1994 bitartean ospatuko duen sorreratik 75. urteurrenean, ahozkerak aztertzeko asmoa du horretarako antolatuko dituen jardunaldietan. Fonologiari ari direnak badira zoriez une honetan eta denen ekarpenak beharko dira euskara baturako arau eta gomendioak finkatzeko. Laborategiko ahozkerak baino herriari daria hobetsi beharko da. Badago zereginik Euskal Herriak hizkuntza batua idatziz eta mintzaturik izan dezan. Hor datza euskara batuaren geroa.

JOSE ANTONIO ARANA MARTIJA
EUSKALTZAIN OSOA

Defendi ezazu laguntza humanitariorako eskubidea

MUGARIK Gabeko Medikuek erakunde pribatua da, gobernu kanpoko (GKE), dirua irabazteko asmorik gabe nazioartean lan egitea helburu duena.

Mugarik Gabeko Medikuek erakundeak bere laguntza ematen die behartasun egoeran bizi diren herriei, inolako diskriminaziorik egin gabe arazari, sexuari, erlijioari edo pentsamendu politikoari dagokienez.

Duela hamar urte baino gehiago, Espainiako ehundik gora profesional hasiak ziren esku hartzen Mugarik Gabeko Medikuek hainbat ataleko programetan. Geroago, 1986. urtean, horietako batzuek beste atal bat sortu zuten Espainian eta egoitza Bartzelonan jarri zuten.

Elkarteak batez ere osasun arloko kideak bane hartzen ditu, nahiz eta bere helburua

betetzeko baliagarriak diren beste lanbideek ere atak irekita dituzten.

Proiektuak egitea ahalbideratzen duten fondoak, nola erakundeak egun dituen 15.000 kideek eskainitako iturri pribatuetatik hala Espainiako Gobernuak, Europako Komunitateak eta beste hainbat erakunde emandako fondo instituzional eta unean uneko laguntza ugariatetik datoz.

Bere eragin eremua hondamendi egoeretan (lurrikarak, ekaitzak, uholdeak, eta abar), herri exodoetan (errefuxiatu eremuak), gerretan eta biztanlegoaren behar oinarrikoenak betetzeko ekonomi eta giza baliapiderik ez duten eta garatze bidean dauden herrietan dago.

Azken helburua mundu guztira bitarteko teknikoak, baliapideak, ezagutzak eta beharrezko profesionalak eramatea da osasun arazo endemikoei amaiera emateko, horre-

tarako hezkuntza eta garapen programetan tokian tokiko eta nazioarteko agintariekin batera lan eginez.

Erakundearen beste helburu handi bat Espainiako biztanlegoaren sensibilizazioa da herri horiek dituzten arazo eta egoerei buruz. Horretarako eta Euskadiko biztanlegoaren erakutsitako interes eta elkartasun handiaren ondorioz, Mugarik Gabeko Medikuek-ek delegazio bat ireki du Euskal Herrian. Bulego horretan kasu egiten zaio bere laguntza emateko edo mundu osoan zehar erakundeak egiten dituen ekintzen berri jakiteko interesa duen edozein pertsonari.

ALMA SAAVEDRA
MUGARIK GABEKO MEDIKUAK
ERAKUNDEKO KIDEA

BERRIAKZIRI



RAFAEL RIBO
Iniciativa per
Catalunyoko
lehenakaria
EL MUNDO

«Ez dut uste PSOEk jarrera aldatu duenik ustelkeriari buruz»



MIQUEL SOLANS
Gobernuaren
delegatua
Katalunian
LA VANGUARDIA

«Polizia autonomikoa indartzearen aldekoa naiz, baina Estatuko segurtasun indarrek Barne Ministerioaren menpe jarraitu behar dute»



JOSE IGNACIO LOPEZ DE ARRIORTUA
Volkswageneko goi kargua
DIARIO 16

«Volkswagenek ez dauka GMri 'kopiatzeko' interesik, bera baino gehiago baita»



LUIS BERGARETXE ARRUTI
Ikastetxeen Elkarte
Independiente
(AICE) lehenakaria
DEIA

«LH da kaltetuena LOGSE lege berriarekin»

ZAKILIXUT

© Olariagak

